

1.- Probaren egitura

Irakurmena

Gehienez proba osoaren %25 izanen da eta ez da gutxieneko puntuazioa eskatuko. Ariketak honakoak izan daitezke:

- A.- EGIA / GEZURRA motakoa.
- B.- AURKERA ANITZEKO GALDERAK motakoa.
- C.- PARAGRAFOAK ordenatzekoa.
- C.- GALDERA IREKIAK motakoa...
- E.- ESALDIAK edo HITZAK txertatzekoa.

Ondoko testu mota hauetako bat izan daiteke: pertsona baten biografia, pertsona baten egunerokoa, bidaia baten gaineko testua, ipuin bat, gida turistiko bat, jatetxe baten gaineko informazioa...

Idazmena

Atal hau azterketa osoaren gutxienez % 25a izanen da eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa lortu behar da. Ikasleak bi aukera izango ditu horietako bat garatzeko. 80/100 hitz inguruko idazlana izanen da.

Gaiak honakoak izan daitezke: bere bizitzaren inguruko zerbait (pasarteren bat, gertatutako zerbait...), hirugarren pertsona baten gaineko zerbait, zerbaiten deskribapena (auzoa, etxea...), postal /gutun bat bidaltzea...

Entzumena

Bat edo bi ariketa izanen dira, luzeraren arabera. Gehienez proba osoaren %25 izanen dira eta ez da gutxieneko puntuazioa eskatuko. Ariketak honakoak izan daitezke:

- A.- EGIA / GEZURRA motakoa.
- B.- AURKERA ANITZEKO GALDERAK motakoa.
- C.- HUTSUNEAK betetzekoa.

Ondoko testu mota hauetako bat izan daiteke: iragarki bat, berri bat, garraioen inguruko informazioa, pertsona bati gertatutako bitxikeriaren bat, pertsona bati egindako elkarrizketa...

Mintzamena

Atal honetan, Ikasleak bere burua aurkezteaz gain (**A ariketa**), zerbaiten kontaketa eta elkarreraginezko eginkizuna ere burutuko ditu (**B ariketa**), dena hamar minutuan edo. Gutxienez proba osoaren %25eko balioa izanen du.

A. ariketa. Irakasleak galdera batzuk eginen dizkio ikasleari: nor den, nongoa, zer ikasi duen, ordutegia, nola etortzen den... *Ariketa honek ez du puntuaziorik izango.*

B. ariketa . Bi zati ditu ariketa honek:

- Lehena, aurretik prestatutako narrazioaren azalpena edo emandako testu baten kontaketa: lagunekin egindako azken ospakizuna, txikitako urtebetetzeak, bidaiaren bat antolatu, norbaiti gertatutako [pasadizoak](#) (argazki batek lagundurik)...

- Bigarrena, bi ikasleren arteko elkarrizketa. Ikasleek gai bat aukeratuko dute batzuen artean. Minutu batean edo, gai horri buruzko galderak pentsatuko dituzte elkarri egiteko. Ondoren eta bat-batean galderei erantzun beharko diete. Gaiak hauexek izan daitezke: erosketak (non erosi, noiz, zer...), bidaia/asteburua prestatu...